

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**306/2020 Foru Agindua, urriaren 2koa, aldatzen duena 162/2020 Foru Agindua, mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzen deialdia onesten duena. 2021, 2022 eta 2023ko kanpainak**

Ekainaren 1eko 162/2020 Foru Aginduaren bidez, onetsi zen mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzak eskatzeko deialdiaren prozedura 2021, 2022 eta 2023ko kanpainetarako, eta eskaerak jasotzeko epe hauek ezarri ziren kanpaina bakoitzerako: 2020ko urriaren 19tik azaroaren 27ra arte 2021eko kanpainarako; 2021eko urriaren 18tik azaroaren 26ra arte 2022ko kanpainarako, eta 2022ko urriaren 17tik azaroaren 25era arte 2023ko kanpainarako.

Europako Batzordeak apirilaren 30ean 592/2020 y 600/2020 erregelamenduak argitaratu zituen, Espainiako mahastizaintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko programaren (hemendik aurrera, PASVE) prozedurak malgutzeko, ohiko neurrietan, zeinen artean mahastiak berregituratu eta birmoldatzekoa baitago, ardo merkatua egonkortzea ahalbideratzeko neurri berriei leku emateko.

Horren ondorioz, 2020ko udan zehar abian jarri dira zenbait neurri, hala nola krisialdiko biltegitratzea eta mahatsa berde biltzea. Horiek ez dute aurrekontu berririk, baizik eta PASVEren beraren kargura finantzatu behar dira.

Ekainaren 18an autonomia erkidegoetako zuzendari nagusiekin egindako bilkuran, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, bere Fruitu, Barazki eta Mahastizaintza eta Ardogintza Zuzendariordetza Nagusiaren bitartez, jakinarazi zuen ohiko neurri guztietan (mahastiak berregituratu eta birmoldatzekoa barne) ezartzen den salbuespeneko prozedura, krisialdiko neurri hauek aplikatzearen ondorioz aldatua.

Prozedura aldatu hori oinarri hartuz, eta laguntza horren 2021eko deialdiari dagokionez, MAPA autonomia erkidegoei jakinarazi die, 2020ko uztailaren 27ko dokumentu baten bidez, hurrengo laguntza deialdia, 2021ekoa alegia, ezin daitekeela argitara eman harik eta PASVE aldatuak Europako Batzordearen oniritzia duen arte, hau da, 2021eko urtarrilera arte.

Horren ondorioz, aldatu behar dira 2021eko deialdirako eskaerak jasotzeko epeak.

Aginduzko txostenak aztertuta eta dagozkidan ahalmenak erabiliz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoan mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko neurrian laguntzak eskatzeko 2021eko deialdiaren prozedura onetsi zuen ekainaren 1eko 162/2020 Foru Aginduaren lehenengo apartatua aldatzea. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

Onestea Arabako Lurralde Historikoan EE 479/2008 Erregelamenduaren 11. artikuluan jasotzen diren mahastiak berregituratzeko edo birmoldatzeko neurrian laguntzak eskatzeko 2021eko deialdiaren prozedura. Hori guztia, 1363/2018 Errege Dekretuan, 608/2019 Errege Dekretuan, 137/2020 Errege Dekretuan eta Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 26ko 26/2019 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko mahastizaintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko EBren 2019-2023ko neurriak garatu eta aplikatzekoan, haren aldakuntzan eta xedapen osagarrietan ezarritako baldintza eta betebeharrekin, FEAGAtik etorritako EBren funtsen finantza esleipenaren bidez, eta laguntza eskaerak jasotzeko epe hauek ezarritik:

– 2021erako, 2021eko otsailaren 1etik martxoaren 31ra bitarteko aldia, bi egun horiek barne.

Laguntzak onetsi baino lehen ekintzak hasi ez izana egiaztatzeko eta ekintzen hasiera baitmentzeko aldez aurreko ikustaldiaren eskaerak, epearen lehenengo hilabeteetan bakarrik onartuko dira, hau da, 2021eko otsailaren 1etik 28ra bitartean.

- 2022rako, 2021eko urriaren 18tik azaroaren 26ra bitarteko aldia, bi egun horiek barne.
- 2023rako, 2022ko urriaren 17tik azaroaren 25era bitarteko aldia, bi egun horiek barne.

Bigarrena. Ekainaren 1eko 162/2020 Foru Aginduaren gainerako edukia bere hartan mantentzea.

Hirugarrena. Argitaratu dadila foru agindu hau ALHAOn.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 2a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*  
*EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO*

*Nekazaritza zuzendaria*  
*MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE*